



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER



Erakunde Autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA



Organismo Autónomo

GOBIERNO VASCO



Trebe eta Tximista

4 UNITATE
DIDAKTIKOA

IPUINA
TESTU LUZEA

Izenburua/Título:	NAHIKO! BERDINTASUNERAKO, ERRESPETURAKO ETA BIOLENTZIA-EZARAKO HEZKIDETZA PROGRAMA NAHIKO! Programa Coeducativo para la Igualdad, el Respeto y la No-violencia
Zuzendaritza eta koordinazioa Dirección y coordinación:	EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea EMAKUNDE/Instituto Vasco de la Mujer Manuel Iradier, 36 01005 Vitoria-Gasteiz www.emakunde.euskadi.net emakunde@ej-gv.es
Gauzatze/Realización:	OREBE HEZKUNTZA S.L. Aholkularitza eta Zerbitzuak/Asesoría y servicios educativos
Argitalpena/Edición:	EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea EMAKUNDE/Instituto Vasco de la Mujer
Deskribatzaileak/ Descriptores:	Hezkidetza, Genero-indarkeria, Ikasmateriala, Lehen mailako irakaskuntza Coeducación, Violencia de género, Material didáctico, Enseñanza de primer grado
ISBN	ISBN: 978-84-89630-25-3




Behin, bazen Berdinlandeko eskolako festa.




Tximista izeneko neska arbelean zegoen.


- Jolasak eta familientzat ikuskizuna prestatzea tokatu zaigu guri. Soinketako maistrak eta plastikako maisuak lagunduko digute dena prestatzen -esan zien tutoreak.




- Jolasak, Tximistak prestatzea proposatzen dut. Bera da beti azkarrena -esan zuen mutil batek.



Tximista azkarra zen, bai, baina ez bakarrik gorputz arina zuelako. Kirola egitea oso gustuko zuen eta asko entrenatzen zuen. Ekinaren ekinez eta saiatuz, oso azkar korrika egiten eta salto oso luzeak egiten ikasi zuen.





- Jolasak guztion artean prestatu behar ditugu -esan zien soinketako maistrak.
- Hori oso zaila da. Gu ez gara onak horretan -esan zuten neska eta mutil batzuek etsiturik.
- Ni ez naiz jakinda jaio. Ikasi egin dut! Entrenatu eta ikas dezakezue -esan zien Tximistak.

Trebe mutil abila eta esku-trebea zen. Eskua altxatu zuen hitza eskatzeko eta horrela esan zien:

- Ikuskizuna antzerkia izan da beti. Aurten guk disenatu eta jositako jantzien moda desfilea egitea proposatzen dizuet.






- Bai! Zein ideia ona! Itzela! -esan zuten gehienek.
- Baina hori oso zaila da. Zu ona zara horretan, baina gu ez -esan zuten neska eta mutil batzuek etsiturik.

- Ni ez naiz jakinda jaio. Nire amona eta aitarekin ikasi dut. Ikastea da kontua. Saiatu eta ikas dezakezue -esan zien Trebek.






Orduan, ados jarri ziren guztien artean. Lehendabizi jolasak aukeratu zituzten: jinkana, lokotxak, soka-tira eta zaku-lasterketa. Gero jantzien desfilea prestatu zuten:

- Nik naturako jantziak proposatzen ditut
- esan zien Trebek.

- Nik beste ideia bat daukat: munduko lurralde ezberdinetako jantziak -proposatu zien plastikako maisuak.

Guztien artean hautatu zuten. Maisuaren proposamena izan zen bozkatuena.




Tximistak eta Trebek ondo ezagutzen zituzten euren lagunak. Bazekiten, saiatuz gero, helburua lortuko zutela eta festa polita egingo zutela denon artean. Horregatik, animoz eta indarrez saiatzeko, kanta hau abestu zieten:

Kirolari nahiz joztun / ikasi eginez,
ez da jakinda jaio / pertsonarik zinez,
mugak gainditzeko / ekin ta ekinez,
neskak eta mutilak / ikasiz berdinez.



Esan eta egin. Hurrengo egunetik entrenamendu eta saiakerekin hasi ziren guztiak soinketako ikastorduetan.

- Animo! -esaten zien soinketako maistrak-.
Oso ondo ari zarete. Zaku-lasterketa prestatzen ari gara.





Eta beste egun batean:

- Soka ondo heldu behar da. Esku bat bestearen aurrean.

Eta beste batean:

- Ea belaun horiek, makurtu-makurtu beheraino, lokotxak lurretik jaso behar dira-eta.







Plastikako ikastorduetan ere, mundu osoko jantziak josteko tailerra martxan jarri zen.

- Hori da, lehendabizi patroia markatu egin behar da -esan zien maisuak batean.

Eta beste batean:



- Orain kontu handiz oihala moztu egin behar da.





Eta beste batean:


- Josten hasi behar da. Hartu orratza eta haria eta horrela egin.




Tximista beti zegoen prest besteei laguntzeko:
- Ikusi, hau da nire trikimailua: oinak ipurdiraino jasotzea. Probatu zuk.



- Hori da, oso ondo!







Eta beste bati:

- Zakua ez erortzeko, belaunak tolestu. Ikusi, horrela.





- Hori da, primeran!





Trebe ere beti zegoen prest besteei laguntzeko:

- Ikusi, hau da nire trikimailua: orratzaren eskua ez mugitu, bestea mugitu. Probatu zuk.



- Hori da, oso ondo!



Eta beste bati:

- Nik helduko dizut oihala. Bultza aurrerantz guraizeak. Hori da, primeran!



Tximistak eta Trebek ez zuten noski dena ondo egiten. Ez zekiten dena eta, beraiek ere ikasten ari zirenez, beste guztiek bezala "ezbeharrak" izaten zituzten. Halakoetan beraien eta besteen barre-algarak pasillotik entzuten ziren:

- A ze parea, karakola eta barea!




Festa eguna iritsi zenean, alaitasuna zen nagusi eskolako jolastokian. Musika zegoen eta jolas asko denentzako. Umeak eta helduak egun eder bat pasatzeko prest zeuden.

- Eguraldi aldaketa omen dator -esan zien zuzendariak irakasleei.
- Oraintxe hasiko gara jolasekin -esan zuen tutoreak.



Lehenengo jolasa jinkana izan zen. Talde guztiek lortu zuten lasterketa bukatzea eta oso ondo pasa zuten.

- Azkar, azkar, nire txanda da -esan zuen zain zegoen mutil batek.






Gero lokotxen jolasa egin zuten. Denen poze-
rako, jolasa inoiz baino berdinduago egon zen.
- Nabaritzen da trebatu garela, nik lehen
askoz polikiago egiten nuen -esan zuen
jolasten ari zen mutil batek.



Gero soka-tira egin zuten, eta ama eta aita batzuek ere parte hartu zuten.

- Baina, zer jan duzue gaur? Hauek tirakadak. Segi, segi horrela -esan zien ama batek.



Azkenik, zaku-lasterketa egin zuten eta parte hartu zuten helduak azkenak izan ziren.

- Nola egin duzue hain ondo eta hain azkar?
 - galdetu zien batek.
- Sekretu bat dugu! Entrenatu egin dugu!
 - erantzun zien Tximistak.






Ondoren familientzako ikuskizuna prestatu zuten. Trebe, Tximista eta lagun guztiek beraiek jositako arropak jantzi zituzten.

- Goazen lagunok, aurrera! - esan zuen Txinako jantzi tradizionala zeraman Trebek.
- Ni izango naiz lehena -erantzun zion Karibeko jantzi tradizionala zeraman Tximistak.

Esan eta egin. Tximistak marakak astindu
zituen eta irribartsu ibiltokitik abiatu zen.




Bere atzetik Errusiako jantzi tradizionala zera-
man laguna abiatu zen. Jendea harrituta
zegoen. Barre eta txalo asko entzun ziren eta
denek adi-adi begiratzen zuten. Aurkezleak
jantzi bakoitza nongoa zen eta nola zegoen
eginda azaltzen zuen.



Orduan, bat-batean, ekaitza hasi zen. Trumoi indartsu bat entzun zen eta euri-jasa izugarria hasi zen.

- Korri, korri! -esan zuen Trebek.
- Azkar, azkar, denok barrura! -gehitu zuen ama batek.





Guztiak jangelan sartu ziren. Kanpoan zaparra-
da gero eta indartsuagoa zen.

- Ez dirudi atertuko duenik -esan zuen tutore-
ak-. Festa bertan behera utzi beharko dugu.
- Ez, ez! Ze pena! -erantzun zuten guztiek.

Tximista, Trebe eta bere lagunak hitz egiteko elkartu ziren.

- Hau ez dugu prestatu -esan zuen Trebek.
- Zergatik ez ditugu ikasi ditugun soinketa ariketak eta egin ditugun jantziak batzen dantzen bidez? -proposatu zuen neska batek.






Tximista eta Trebe segituan animatu ziren:

- Hori! "Munduko dantzak" dantzatu ditzagun -esan zuen Tximistak.
- Hori! Martxa, martxa! Daaantza! -esan zuen Trebek.

Tximista mahai baten gainean musika jotzen
hasi zen.

- Ea lagunak, musika pixka bat behar dugu
dantzatzeko. Animo! Jarraitu eritmo hau!
- esan zien guztiei.



Eta poliki-poliki talde batek perkusioari ekin
zion mahai, aulki eta kutxak erabiliz.





Trebe dantzan hasi zen orduan. Eta, ikusi ondoren, denek ikasi zuten.



- Erraza da -esan zien Trebek-. Mugimenduak ikasi eta listo!



Ipar Amerikako dantza ikasi eta dantzatu
zuten gero.




Eta ondoren Errusiako dantza.





Euskal dantzak ondoren, fandangoa eta arin-arina ikasi eta dantzatu zituzten.

Afrikako bat ere ikasi eta dantzatu zuten.





Eta Karibekoa ere dantzatu zuten Tximistarekin.
- Animo, inor ez da jakinda jaio, ikasi egiten da! Makurtu, makurtu gerria!

Giro oso alaia izan zuten dantzaldian eta
denek elkarrekin kantatuz bukatu zuten
festa eguna:

♫ Kirolari nahiz joztun / ikasi eginez,
ez da jakinda jaio / pertsonarik zinez,
mugak gainditzeko / ekin ta ekinez,
neskak eta mutilak / ikasiz berdinez.

